Kontratuen erregistroa 2023ko uztailean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko uztailean 49.447 pertsona kontratatu dira, joan den urteko uztailean baino 4.708 gutxiago (% 8,7ko beherakada). Ekainarekin alderatuta ere murriztu egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 5.469 pertsona gutxiago kontratatu dira,% 10eko beherakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 25.283 gizonezko eta 24.161 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; emakumezkoen kasuan murrizketa haundiagoa da, % 9ko jaitsiera izan baitu (-2.397 emakume) gizonezkoen % 8,4ko beherakadaren aldean (- 2.311 gizon).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 33,59 da, eta baxuagoa da gizonena (33,07) emakumezkoena baino (34,15). Gipuzkoakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (32,70), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (34,27).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 27,83 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 43 urtekoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (32,26 eta 34,36 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 33,46 urte baitituzte gizonezkoen 30,09ren aldean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatuko pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino gazteagoak dira (33,31 vs 34,36).

• JATORRIA

2023ko uztailean kontratatutako pertsonen % 18k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino puntu 0,8 altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 53,8k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 13,1ek Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 12k Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialderen batekoa, % 7,3k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa, % 6,6k Asiako herrialderen batekoa eta, azkenik, % 6,3k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa. Bertakoak atzerritarrak baino gazteagoak dira (33,13 eta 35,69 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Afrikako iparraldekoak dira gazteenak (34,52 urte) eta Saharaz azpiko Afrikako herrialderen batekoak zaharrenak (36,94 urte).

Azken hilabetean, Saharaz hegoaldeko Afrikako jatorria duten pertsonen kopurua hazi da soilik: 34 pertsona gehiago eta % 3,8ko igoera. Balio absolutuetan gehien murriztu den pertsonataldea Latinoamerikatik etorritakoena izan da, 383 pertsona gutxiago kontratatu baitira (% 7,4 gutxiago); balio erlatiboetan, aldiz, beherakadarik handiena Europar Erkidegoko herrialderen batetik etorritako taldean izan da, % 29,9ko jaitsierarekin (237 pertsona gutxiago kontratatu dira).

Azken urteari erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan murriztu da kontratatutako pertsonen kopurua Latinoamerikatik etorritakoen artean izan ezik; horien kasuan,

113 pertsonatan igo da kontratazioa (% 2,4ko hazkundea). Murrizketa handiena, balio absolutuetan, Afrikako iparraldetik etorritakoen taldeak jasan du; 132 pertsona gutxiago eta % 10,2ko jatsiera; balio erlatiboetan, aldiz, beherakada handiena Europar Erkidegokoa ez den herrialde batetik etorritakoek jasan dute, % 14,4 jaitsi baitira (109 pertsona gutxiago).

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 42,2k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, % 25,8k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 16,4k LH-koak eta % 15ek unibertsitateko ikasketak.

Hileko erreferentzian, profil guztietako pertsonen kontratazioak egin du gora. Gehien murriztu direnak, balio absolutu zein erlatiboetan, LHko ikasketak dituztenak izan dira 2.587 pertsona gutxiago kontratatu baitira (% 24,1eko jaitsiera).

Urteko erreferentzian ere, ikasketa mota guztietako kontratazioa murriztu da. Beherakada handiena, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da (-1.756 pertsona gutxiago kontratatu dira, % 7,8ko murrizketa); balio erlatiboetan, aldiz, unibertsitateko ikasketak dituztenen kontratazioak jasan du beherakada handiena (% 12,6 eta 1.071 pertsona gutxiago).

KONTRATUEN KOPURUAK

2023ko uztailean zehar kontratazio kopurua 63.589 izan da EAEn, horietatik 14.444 (% 22,7) mugagabeak izan dira. Ekainetik kontratu mugagabeen ehunekoa 2 puntutan jaitsi arren, handia izaten jarraitzen du da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta. Datu honek, 2022ko joera berresten du eta esan daiteke iaz onartutako lan-erreformak ekarri duen kalitate handiagoko kontratazioren islada dela. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 24,3 eta % 21,1, hurrenez hurren).

Kontratazioa % 12,8 murriztu da aurreko hilabetearekiko (9.318 kontratu gutxiago); aurreko urtearekin alderatuta ere, murriztu egin da (% 9,5 eta 6.637 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsierarik handienak ostalaritzan (-2.543), manufaktura-industrian (-1.948) eta osasunean (-1.380) izan dira. Aldiz, gorakada handiena aisialdi-jardueretan izan da, 1.121 kontratu gehiagorekin.

Iazko datuekin alderatuta ere, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsiera nabarmenenak profil hauen kontratazioan eman dira: manufaktura-industria (-1.882), osasuna (-1.492) eta ostalaritza (-1.443). Aldiz, kontratazioa gehien hazi diren jarduerak aisialdikoak (+793) eta administratiboak (+538) dira.

• OKUPAZIOA

Hil arteko erlazioan, kontratazioak behera egin du okupazio guztietan, administrari-enplegatuetan izan ezik, 41 kontratu gehiago izan baitira. Kontratazioak, balio absolutuetan,

teknikari eta zientzia-profesionalen profilean egin du behera gehien, 2.088 kontratutan hain zuzen ere (% 23,1eko jaitsiera); balio erlatiboetan, berriz, jaitsiera handiena lehen sektoreko kualifikatuen okupazioan gertatu da, % 28,9ko jaitsierarekin (75 kontratu gutxiago).

Iazko uztailarekin alderatuta, kontratazioak behera egin du, batez ere ez-kualifikatuetan (-3.700, % 18,6 gutxiago), zerbitzuetako kualifikatuetan (-1.660, % 7,8 gutxiago) eta industriako kualifikatuetan (-1.295, % 26,4 gutxiago). Beste aldean, gora egin du, batez ere, administrari enplegatuen artean (+731 kontratu, % 21,5 gehiago) eta laguntza-teknikarien artean (+37 kontratu, % 0,4 gehiago).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek pentsarazten digute lan-erreformak bere fruituak ematen dituela kontratu mugagabeen sendotasuna handitzerakoan; izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko uztailean sinatutako kontratuen % 35,7 lanaldi partzialekoak dira, % 46,6 emakumeen kasuan eta % 23,7 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 28,8 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 55,5), beste zerbitzuak (% 51,7) eta hezkuntza (% 49,9). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan gehien izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 53,6), eta gutxiena, lehen sektoreko kualifikatuen profila (% 4,9).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 19,8 Araban dago, % 48,9 Bizkaian eta gainerako % 31,3 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 718 kontratu gutxiago sinatu dira (% 5,4ko jaitsiera); Bizkaian 4.554 gutxiago (% 12,8 gutxiago) eta Gipuzkoan 4.046 gutxiago (% 16,9).

Aurreko urtearen aldean, Gipuzkoan 1.099 kontratu gutxiago sinatu dira (% 11,1eko jaitsiera), Lurralde Historiko hau da du jaitsierarik handiena izan duena ehunekotan; ondoren Bizkaian % 8,9 jaitsi da kontratazioa (3.044 kontratu gutxiago) eta, azkenik, Araban, 1.099koa izan da beherakada (% 8ko jaitsiera).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2023ko uztailean sinatutako kontratuen % 20,5 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 27,2 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 12,8 bakarrik egin du ABLE batek.

Kontratuen erregistroa 2023ko uztailean

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 4,5 murriztu dira; 2022ko ekainarekin alderatuta, % 21,8koa izan da beherakada.



Kontratuen erregistroa 2023ko uztailean

		Uzt-2023	Eka-2023	Uzt-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	14.444	18.020	18.475	-3.576	-19,84	-4.031	-21,8
	Aldi baterakoa	49.145	54.887	51.751	-5.742	-10,46	-2.606	-5,0
	Guztira	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
	Mugagabeen %	22,7%	24,7%	26,3%	-2,00		-3,59	
Sexua	Gizona	32.331	36.436	35.769	-4.105	-11,27	-3.438	-9,6
	Emakumea	31.258	36.471	34.457	-5.213	-14,29	-3.199	-9,3
	Guztira	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
	Emakumeen %	49,2%	50,0%	49,1%	-0,87		0,09	
Mugaga-bea	Gizona	7.853	9.860	9.554	-2.007	-20,35	-1.701	-17,8
	Emakumea	6.591	8.160	8.921	-1.569	-19,23	-2.330	-26,1
	Guztira	14.444	18.020	18.475	-3.576	-19,84	-4.031	-21,8
Aldi bate-rakoa	Gizona	24.478	26.576	26.215	-2.098	-7,89	-1.737	-6,6
	Emakumea	24.667	28.311	25.536	-3.644	-12,87	-869	-3,4
	Guztira	49.145	54.887	51.751	-5.742	-10,46	-2.606	-5,0
Guztira	Gizona	32.331	36.436	35.769	-4.105	-11,27	-3.438	-9,6
	Emakumea	31.258	36.471	34.457	-5.213	-14,29	-3.199	-9,3
	Guztira	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
Mugaga-been tasa	Gizona	24,3%	27,1%	26,7%	-2,77		-2,42	
	Emakumea	21,1%	22,4%	25,9%	-1,29		-4,80	
	Guztira	22,7%	24,7%	26,3%	-2,00		-3,59	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.411	5.108	5.831	-697	-13,65	-1.420	-24,4
	Aldi baterakoa	18.287	20.341	19.106	-2.054	-10,10	-819	-4,3
	Beste batzuk	40.891	47.458	45.289	-6.567	-13,84	-4.398	-9,7
	Guztira	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
	LP tasa	35,7%	34,9%	35,5%	0,79		0,19	
Lanaldi partziala	Gizona	8.139	8.675	8.923	-536	-6,18	-784	-8,8
	Emakumea	14.559	16.774	16.014	-2.215	-13,20	-1.455	-9,1
	Guztira	22.698	25.449	24.937	-2.751	-10,81	-2.239	-9,0
	Gizonen tasa	25,2%	23,8%	24,9%	1,37		0,23	
	Emakumeen tasa	46,6%	46,0%	46,5%	0,58		0,10	
	Tasa guztira	35,7%	34,9%	35,5%	0,79		0,19	
Prestakuntza-koak	Prestakuntzakoak	205	907	189	-702	-77,40	16	8,5
	Beste batzuk	63.384	72.000	70.037	-8.616	-11,97	-6.653	-9,5
	Guztira	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
	Prestakuntzakoak (%)	0,3%	1,2%	0,3%	-0,92		0,05	
L. historikoa	Araba	12.581	13.299	13.680	-718	-5,40	-1.099	-8,0
	Bizkaia	31.083	35.637	34.127	-4.554	-12,78	-3.044	-8,9
	Gipuzkoa	19.925	23.971	22.419	-4.046	-16,88	-2.494	-11,1
	EAE	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
Gizonak	Lehen sektorea	465	873	591	-408	-46,74	-126	-21,3
	Erauzketa-industriak	9	9	7	0	0,00	2	28,6
	Manufaktura-industriak	6.187	7.587	7.477	-1.400	-18,45	-1.290	-17,3
	Energia	5	13	10	-8	-61,54	-5	-50,0
	Ura	367	538	582	-171	-31,78	-215	-36,9
	Eraikuntza	1.705	2.063	2.122	-358	-17,35	-417	-19,7
	Merkataritza	3.489	3.840	3.889	-351	-9,14	-400	-10,3
	Garraioa	3.457	3.871	4.330	-414	-10,69	-873	-20,2
	Ostalaritza	3.507	4.292	4.068	-785	-18,29	-561	-13,8
	Informazioa eta komunikazioa	1.450	1.727	1.255	-277	-16,04	195	15,5
	Finantzak eta aseguruak	122	162	122	-40	-24,69	0	0,0
	Higiezinen sektorea	28	28	20	0	0,00	8	40,0
	Zientifikoak eta teknikoak	1.025	1.078	1.186	-53	-4,92	-161	-13,6
	Administraziokoak	3.688	3.719	3.339	-31	-0,83	349	10,5
	Administrazio publikoa	548	480	549	68	14,17	-1	-0,2
	Hezkuntza	777	1.157	964	-380	-32,84	-187	-19,4
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.634	1.951	1.917	-317	-16,25	-283	-14,8

Kontratuen erregistroa 2023ko uztailean

		Uzt-2023	Eka-2023	Uzt-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.214	2.387	2.654	827	34,65	560	21,1
	Beste zerbitzu batzuk	547	562	549	-15	-2,67	-2	-0,4
	Etxeetako jarduerak	107	95	136	12	12,63	-29	-21,3
	Lurraldez kanpoko erakundeak	0	4	2	-4	-100,00	-2	-100,0
	Guztira	32.331	36.436	35.769	-4.105	-11,27	-3.438	-9,6
Emakumeak	Lehen sektorea	56	139	59	-83	-59,71	-3	-5,1
	Erauzketa-industriak	1	7	2	-6	-85,71	-1	-50,0
	Manufaktura-industriak	2.013	2.561	2.605	-548	-21,40	-592	-22,7
	Energia	8	6	7	2	33,33	1	14,3
	Ura	58	50	67	8	16,00	-9	-13,4
	Eraikuntza	138	189	164	-51	-26,98	-26	-15,9
	Merkataritza	4.491	4.760	4.837	-269	-5,65	-346	-7,2
	Garraioa	1.092	869	736	223	25,66	356	48,4
	Ostalaritza	4.703	6.461	5.585	-1.758	-27,21	-882	-15,8
	Informazioa eta komunikazioa	934	1.199	951	-265	-22,10	-17	-1,8
	Finantzak eta aseguruak	165	151	205	14	9,27	-40	-19,5
	Higiezinen sektorea	43	67	65	-24	-35,82	-22	-33,8
	Zientifikoak eta teknikoak	927	1.029	1.253	-102	-9,91	-326	-26,0
	Administraziokoak	4.099	4.031	3.910	68	1,69	189	4,8
	Administrazio publikoa	387	978	388	-591	-60,43	-1	-0,3
	Hezkuntza	2.241	3.156	2.311	-915	-28,99	-70	-3,0
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.960	7.023	7.169	-1.063	-15,14	-1.209	-16,9
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.870	1.576	1.637	294	18,65	233	14,2
	Beste zerbitzu batzuk	972	1.142	1.079	-170	-14,89	-107	-9,9
	Etxeetako jarduerak	1.097	1.074	1.425	23	2,14	-328	-23,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	3	2	0	0,00	1	50,0
	Guztira	31.258	36.471	34.457	-5.213	-14,29	-3.199	-9,3
Guztira	Lehen sektorea	521	1.012	650	-491	-48,52	-129	-19,8
	Erauzketa-industriak	10	16	9	-6	-37,50	1	11,1
	Manufaktura-industriak	8.200	10.148	10.082	-1.948	-19,20	-1.882	-18,7
	Energia	13	19	17	-6	-31,58	-4	-23,5
	Ura	425	588	649	-163	-27,72	-224	-34,5
	Eraikuntza	1.843	2.252	2.286	-409	-18,16	-443	-19,4
	Merkataritza	7.980	8.600	8.726	-620	-7,21	-746	-8,5
	Garraioa	4.549	4.740	5.066	-191	-4,03	-517	-10,2
	Ostalaritza	8.210	10.753	9.653	-2.543	-23,65	-1.443	-14,9
	Informazioa eta komunikazioa	2.384	2.926	2.206	-542	-18,52	178	8,1
	Finantzak eta aseguruak	287	313	327	-26	-8,31	-40	-12,2
	Higiezinen sektorea	71	95	85	-24	-25,26	-14	-16,5
	Zientifikoak eta teknikoak	1.952	2.107	2.439	-155	-7,36	-487	-20,0
	Administraziokoak	7.787	7.750	7.249	37	0,48	538	7,4
	Administrazio publikoa	935	1.458	937	-523	-35,87	-2	-0,2
	Hezkuntza	3.018	4.313	3.275	-1.295	-30,03	-257	-7,8
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	7.594	8.974	9.086	-1.380	-15,38	-1.492	-16,4
	Arte- eta jolas-jarduerak	5.084	3.963	4.291	1.121	28,29	793	18,5
	Beste zerbitzu batzuk	1.519	1.704	1.628	-185	-10,86	-109	-6,7
	Etxeetako jarduerak	1.204	1.169	1.561	35	2,99	-357	-22,9
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	7	4	-4	-57,14	-1	-25,0
	Guztira	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
Gizonak	<>	0	1	0	-1	-100,00	0	
	Zuzendaritza	95	108	90	-13	-12,04	5	5,6
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	2.864	3.560	2.836	-696	-19,55	28	1,0
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	4.755	5.097	4.437	-342	-6,71	318	7,2
	Administrazioko langileak	1.694	1.490	1.190	204	13,69	504	42,4
	Zerbitzuetako kualifikatuak	7.037	8.037	7.556	-1.000	-12,44	-519	-6,9

Kontratuen erregistroa 2023ko uztailean

		Uzt-2023	Eka-2023	Uzt-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	170	240	166	-70	-29,17	4	2,4
	Industriako kualifikatuak	3.245	4.109	4.415	-864	-21,03	-1.170	-26,5
	Operadoreak	3.648	4.407	4.167	-759	-17,22	-519	-12,5
	Kualifikatu gabeak	8.823	9.387	10.912	-564	-6,01	-2.089	-19,1
	Guztira	32.331	36.436	35.769	-4.105	-11,27	-3.438	-9,6
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	63	57	60	6	10,53	3	5,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.094	5.486	4.207	-1.392	-25,37	-113	-2,7
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	3.752	4.104	4.033	-352	-8,58	-281	-7,0
	Administrazioko langileak	2.441	2.604	2.214	-163	-6,26	227	10,3
	Zerbitzuetako kualifikatuak	12.497	15.024	13.638	-2.527	-16,82	-1.141	-8,4
	Oinarrizko kualifikatuak	15	20	17	-5	-25,00	-2	-11,8
	Industriako kualifikatuak	373	444	498	-71	-15,99	-125	-25,1
	Operadoreak	600	808	756	-208	-25,74	-156	-20,6
	Kualifikatu gabeak	7.423	7.924	9.034	-501	-6,32	-1.611	-17,8
	Guztira	31.258	36.471	34.457	-5.213	-14,29	-3.199	-9,3
Guztira	<>	0	1	0	-1	-100,00	0	
	Zuzendaritza	158	165	150	-7	-4,24	8	5,3
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	6.958	9.046	7.043	-2.088	-23,08	-85	-1,2
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	8.507	9.201	8.470	-694	-7,54	37	0,4
	Administrazioko langileak	4.135	4.094	3.404	41	1,00	731	21,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	19.534	23.061	21.194	-3.527	-15,29	-1.660	-7,8
	Oinarrizko kualifikatuak	185	260	183	-75	-28,85	2	1,1
	Industriako kualifikatuak	3.618	4.553	4.913	-935	-20,54	-1.295	-26,4
	Operadoreak	4.248	5.215	4.923	-967	-18,54	-675	-13,7
	Kualifikatu gabeak	16.246	17.311	19.946	-1.065	-6,15	-3.700	-18,6
	Guztira	63.589	72.907	70.226	-9.318	-12,78	-6.637	-9,5
ABLE	Gizonak	6.879	7.120	8.965	-241	-3,38	-2.086	-23,3
	Emakumeak	3.233	3.463	3.963	-230	-6,64	-730	-18,4
	Guztira	10.112	10.583	12.928	-471	-4,45	-2.816	-21,8
Pertsona-kopurua	Gizonak	25.286	28.183	27.597	-2.897	-10,28	-2.311	-8,4
	Emakumeak	24.161	26.733	26.558	-2.572	-9,62	-2.397	-9,0
	Guztira	49.447	54.916	54.155	-5.469	-9,96	-4.708	-8,7
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	20.883	22.467	22.639	-1.584	-7,05	-1.756	-7,8
	Batxilergoa	12.769	12.887	13.765	-118	-0,92	-996	-7,2
	LHko ikasketak	8.132	10.719	8.970	-2.587	-24,13	-838	-9,3
	Unibertsitate-ikasketak	7.431	8.587	8.502	-1.156	-13,46	-1.071	-12,6
	Atzerritarra	8.903	9.832	9.341	-929	-9,45	-438	-4,7
	Bertakoa	40.544	45.084	44.814	-4.540	-10,07	-4.270	-9,5
	<>	31	25	40	6	24,00	-9	-22,5
	Aberrigabea	44	50	69	-6	-12,00	-25	-36,2
	Europako Erkidegoa	557	794	639	-237	-29,85	-82	-12,8
	Erkidegokoa ez den Europa	650	772	759	-122	-15,80	-109	-14,4
	Txina	116	134	106	-18	-13,43	10	9,4
	Japonia	7	3	4	4	133,33	3	75,0
	Asiako beste herrialde bat	466	537	537	-71	-13,22	-71	-13,2
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1.068	1.029	1.192	39	3,79	-124	-10,4
	Afrikako iparraldea	1.165	1.299	1.297	-134	-10,32	-132	-10,2
	Ipar Amerika	9	17	19	-8	-47,06	-10	-52,6
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.786	5.169	4.673	-383	-7,41	113	2,4
	Ozeania	4	3	6	1	33,33	-2	-33,3
	Atzerritarrak guztira	8.903	9.832	9.341	-929	-9,45	-438	-4,7